



## Gazteen parte-hartzea sustatzeko aldaketak aldarrikatu dituzte

- Politikarekiko gazteen aldentzeaz ohartarazi die Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak ordezkari politikoei, eta parte-hartze berrietara moldatu daitezela gomendatu
- **“Gazteak eta parte-hartzea” ikerlana** aurkeztu du gazteen erakundeak

*Donostia, 2014ko martxoaren 19an.* “Gizartean gazteen parte-hartzea oztopatzen duten arazoei aurre egiteko” **hogeita hamar proposamenetik gora** egin ditu gaur Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak, 60 gazte-elkarte baino gehiagok osatutako erakundeak. Donostian eskainitako prentsaurreko batean, **“Gazteak eta parte-hartzea” ikerketa** aurkeztu du eragileak. Lan horretan, “euskal gazteriaren gizarte-inplikazioa eragotzi dezaketen trabak” antzematen ditu eta, horiek gainditzeko, aldaketak proposatzen ditu instituzioetan, elkarteetan eta EGK-n bertan.

Ikerketan Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako 75 elkartetako ehun pertsonak parte hartu dute eta, ikerlanaren egile Fabio González gazteak adierazi duenez, “parte-hartzaileek antzeman dituzten trabetako askok gure gizarte-ereduak hartu duen norabidearekin” zerikusia dute: “Bizi garen gizarte honetan, **persona helduak daude erdigunean eta gizarte-boterearen** muinean eta gazteen arazoak bigarren plano batean uzten ditugu edo, are okerrago, gutxietsi edo ikustezin bilakatzen ditugu”. EGK-ko kideak gaineratu duenez, **“estereotipoz josita** dago gazteriari buruzko gure ikuspuntua, eta hain zabaldua dagoenez gazteak *pasota* batzuk garenaren ideia, batzuetan hori sinetsi egiten dugula eta guk geuk betetzen dugu profetia”.

Era berean, gazte-erakundearen ikerlariak azaldu du gaur egungo gazteria **“denborarik gabeko belaunaldia”** dela, “hiperformatua eta hiperokupatua” egotea eskatzen diogula eta, horren ondorioz, “apenas duela boluntarioria eta aktibismoari eskaintzeko denborarik, gero eta gehiago norberarena dena guztiona denaren gainetik dagoen gizarte batean”. Traba hauei beste batzuk gaineratu dizkio: “Askotan kontsumoan eta jarduera ez-kritikoan oinarritzen den gure aisialdi eredu, **gazteriaren ahalduntzea** urratu dezakeen gazteekiko gehiegiko babesa eta ordezkari **politikoekiko aldentzea**”, hala nola “parte-hartzearen erabilgarritasunari eta politikan duen eraginari buruzko zalantzak”, bai eta parte-hartze modu sakonagoak ordezkatu eta kaltetu ditzaketen **gizarte sareen** zenbait erabilera (beste erabilera batzuk partaidetza errazten duten bitartean).

### Jardute desegokiak

Gizarte ereduarekin zerikusia duten oztopoei elkarrean funtzionamenduarekin lotutako trabak gaineratzen zaizkiela azaldu du Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak. Erakundearen parte-hartze teknikari Fabio Gonzálezek horietako batzuk zerrendatu ditu: “Talde batzuen **hermetismoa, eginkizunen banaketa** desegokia, **inplikazio maila** ezberdinak kudeatzeko ezgaitasuna, belaunaldi berrien **errelebo eza** eta lan egiteko modu **ez eraginkorrak**”.



Arazo hauei guztiei aurre egiteko, EGK-k hainbat aldaketa proposatu ditu Administrazioan, elkarteetan eta Kontseiluan bertan egiteko. Ordezkarri politikariei dagokienez, hainbat eskakizun egin dizkie: “Gazteen parte-hartze **mota berriak** ezagutzeko eta horietara moldatzeko, elkarte eta parte-hartze ekimenetara **baliabideak** bideratzeko, erregistroa edo diru-laguntzak bezalako gaietan gizarte mugimenduei gauzak **errazteko**, parte-hartzen duten gazteek egindako **proposamenak kontuan** hartzeko eta gazteei eta parte-hartzeari buruzko ikerketak **babesteko**”.

Elkarteei ere gomendioak egin dizkie erakundeak: “Lan egiteko moduetan **berrikuntzak** egiteko (komunikazioan, ordutegi eta lekuetan, dinamiketan...), **parte-hartze maila** ezberdinak ahalbidetzeko, pertsonen nahi eta gaitasunen arabera lan-banaketak egiteko eta parte-hartzaile gehienentzat **itxiak diren azpitaldeak** saihesteko”. Era berean, parte ez hartzeko arrazoiak hobeto ulertzeko beharraz ohartarazi du EGK-k, egoeraren diagnostikoa hobetzeko. Zentzu horretan gaineratu du “errespetutik baino ez ditugula parte-hartzaile berriak erakarriko”.

Autokritika ariketa ere egin du Gazteriaren Kontseiluak, eta hainbat erronka jarri dizkio bere buruari: bere **diskurtsoa** euskal gazteen kezka nagusietara moldatzea, **EGK-ko kide** diren elkarten parte-hartzea areagotzea erakundearen eta gazteoi buruzko **estereotipoei aurre** egiteko azterlanak eta txostenak argitaratzea, bai eta espazio kritiko bezala, gazte mugimenduen bozgorailu gisa eta gazteriaren eta Administrazioaren arteko zubi moduan dituen eginkizunak indartzea. Ikerketaren ondorioak Kontseiluaren webgunean daude, [www.egk.org](http://www.egk.org). Laster bideo bat zintzilikatuko dute ere, <https://www.youtube.com/user/komunikaegk> Youtubeko txokoan. Era berean, urte amaieran Gazteen Euskal Behatokiarekin lankidetzan ikerketa kuantitatibo berri bat egingo dutela iragarri dute, oraingoan aurkeztutako ondorioetan sakontzeko.

**informazio+**

688 67 59 32

665 71 16 40

Itsaso Estarrona Elizondo  
Komunikazioa



## ‘Gazteak eta parte-hartzea’ ikerketaren ondorioak

### **GAZTEEI** buruz:

- **Belaunaldien arteko haustura** bat gertatu da. Gazteek uste dute bere bizi-maila bere aiton-amonen antza gehiago izango duela, bere gurasoek izan dutenarekin baino. Baldintza materialekin lotutako espektatibak apurtu zaizkion belaunaldi bat da. Gazteen identitatea definitzeko kultura, jarrerak eta bizimoduak ziren protagonista beste garai batean, eta gaur egun, sozioekonomiarekin lotutako gakoekin identifikatzen da, jasandako urraketa dela eta.

### **PARTE-HARTZEKO MOTIBAZIOEI** buruz:

- Norberaren **errealizazioa**, autoafirmazioa.
- **Ikastea**, ezagutzea eta hezteak.
- **Sozializazioa** eta integrazioa.
- **Ondo pasatzea**.
- Inguruaren **transformazioa**.
- **Idealen** gauzatzea
- **Lan** aukerak.
- **Askatasuna** eta erantzunkizuna.
- **Hiritartasunaren** gauzapena, eskubideak eta erantzunkizunak.
- **Familia-tradizioa**.

### **PARTE-HARTZEAREN JOEREI** buruz:

- **Pertzeptzioa:** parte hartu dutenen gehienek ez dute uste gazteen parte-hartzea gutxitu denik. %29ak uste du areagotu dela, %40,6ak mantentzen dela eta %30,4ak behera egin duela.
- **Feminizatutako errealitatea:** beste ikerketa batzuetan bezala, parte-hartzen dutenen erdia baino gehiago dira emakumeak (%60).
- **Hizkuntzen egoera:** ikerketen dinamiketatik ondorioztatu daitekeenez, euskarak indarra du parte-hartze esparruetan, baina hegemoniko izatetik urruti dago: 33 dinamika euskaraz izan ziren, 33 gazteleraz eta 6 elebidun.
- **Forma berriak:**
  - Ekintza kolektibo mota berriak agertzen eta desagertzen dira modu espontaneoan.
  - Parte hartzeko modu berriak (noizbehinkako kolaborazioak, konpromiso partzialak, komunikazio tresna berritzaileak), gazteen inplikaziorako **bultzada** izan daitezke, bere bizimoduarekin zerikusi gutxiago duten eredu zaharren aurrean.



**OZTOPOEI** buruz:

**Gizarte ereduarekin** zerikusia dutenak:

- Indibidualizazio prozesua ematen ari da eta **norberarena kolektiboarenaren gainetik** dago gero eta gehiago.
- Gure gizartean **helduak daude erdigunean** eta boterearen muinean. Gazteen arazo eta ekimenak bigarren plano batean daude, edo, are okerrago, gutxiesten eta ikustezin bilakatzen dira.
- Gazteriari buruz **estereotipoz jositako ikuspuntuak** ditugu. Gazteak *pasotak* direnaren ideia zabaldua dago, eta ondorioz gazte normal bat izatea hori dela sinistu eta iragarpena betetzen dugu kasu batzutan.
- **Denborarik gabeko belaunaldia** da. Hiperformatua eta hiperokupatua egoteko eskatzen diogu, eta horrek besteen alde lan egiteko eta boluntarioria, aktibismoa eta bestelako parte-hartzeetarako denbora murrizten dio.
- Gure **aisialdi eredu** nagusia kontsumoarekin eta jarduera ez-kritikoeekin lotuta dago, eta ez hainbeste konpromisoarekin eta gizartearen eraldaketarekin zerikusia duten ekintzekin.
- **Gehiegizko babesa** eman diogu gazteriari, eta horrek bere burua ahalduntzeko eta erantzukizunak hartzeko gaitasunari kalte egin diezaioke.
- **Politikarekiko aldentzea** gertatu da, bereziki ordezkari politikarekiko aldentzea. Politikarekin zerikusia duena devaluatu da.
- **Egoera sozioekonomikoak** parte-hartzearen eremu jakin batzuetan parte hartzera bultzatu ditu hainbat gazte, baina, aldi berean, desabantaila egoeran dauden gizarte-mailentzat oztopo *extra* bat izaten ari da; horrek parte-hartzearen **elitizazioa** ekar lezake.
- **Ziurgabetasuna** ziurra den bakarra den testuinguru batean bizi da gazteria, eta horrek **konpromiso egonkorrak** zailtzen ditu.
- Ezadostasunak adierazteko **gizarte sareen** erabilera areagotu da. Erabilera horrek sakonagoak diren inplikazio moduen **euste-horma** bezala jokatu dezake. Esatea egitearekin nahasten dugu, eta kexatzea mugitzearekin.
- Kasu askotan, ordezkari politikoei eta Administrazioak **ez dituzte kontuan hartzen** parte-hartze prozesuen ondorioz sortutako proposamen eta ekimenak, eta hori parte-hartzea sustatzeko eragozpen bat da.

**Elkarteen funtzionamenduarekin** zerikusia dutenak:

- **Hermetismoa**: batzutan kolektiboak **oso itxiak** dira edo bere egunerokotasunaren jarduerara mugatzen dira ez dira ateak irekitzen ahalegintzen.
- **Azpitalde bartzertzaileak**: eragile batzuetan erabakitzaile izateko bokazioa duten azpitalde itxiak sortzen dira eta horrek kohesioa kaltetzen du, talde-izaera mintzen du eta gainontzeko parte-hartzaileak gogogabetzen ditu.



- **Eginkizunen banaketa desegokia:** elkarteak batzutan ez dira saiatzen (edo ez dute lortzen) pertsona bakoitzak hobeto egiten dakiena eta gehien gustatzen zaiona egitea eta horrek parte-hartzeko interesa izan dezaketen pertsonak urruntzen ditu.
- **Parte-hartze pertsonalizatuak kudeatzeko ezgaitasuna:** elkarte guztiek ez dituzte inplikazio-maila eta mota ezberdinak kudeatzeko tresnak
- **Zubirik ez:** gazteak orokorrean ez dira parte-hartzera animatzen kolektibo edo gizarte-mugimendu baten kideren batekin harremanik ez baldin badute.
- **Epai negatiboak:** parte hartzen ez dutenekiko kritikek urruntze handiagoa eragin dezakete.
- **Errelebo falta:** batzutan, adin guztietako pertsonen osatutako elkarteek ez dute belaunaldien arteko erreleboa ahalbidetzen eta kolektiboaren baitan gazteek erantzukizunak bere gain hartu nahi dituztenean erresistentzia aurkezten dute.
- **Ezeraginkortasuna:** funtzionatzeko modu asko (erritmoak, espazioak, dinamikak, egiturak...) ezeraginkorrak izan daitezke eta ondorioz parte-hartze maila murriztu.
- **Erretako parte-hartzaileak:** ardua, eginkizun eta jarduera asko pertsona bakar batzuen gain uzteak bere aldentzea eragin dezake.
- **Esperientzia txarrak:** parte-hartzearekin lotutako bizipen negatiboek etorkizunean eman zitezkeen inplikazioak eragozten dituzte.
- **Gazte elkarten zahartzea:** gazteak ez diren pertsonen parte-hartzea eta protagonismoak atzera botatzen ditu printzipioz gazte-elkarteak diren horietan parte hartu nahiko luketen gazte asko.

## **ALDAKETA ETA GOMENDIOEI** buruz:

### **Administrazioari** eskakizunak:

- Gizarte mugimenduei gauzak **erraztea** (espazio publikoen erabilera, elkarten erregistroa, diru-laguntzen tramiteak, Administrazioaren parte-hartze prozesuetako baldintzak...).
- Hiritarrek abiatutako elkarte eta parte-hartze ekimenei **baliabideak** bideratzea.
- Parte-hartze prozesuen proposamenak **kontuan izatea**.
- Parte-hartze modu berrietara **moldatzea**.
- Parte hartzen duten gazteekin **harreman eta elkarrizketarako bideak** hobetu.
- Gazteei buruzko diskurtso negatibo eta estereotipatuei **aurre egiteko** neurriak hartu.
- Gazteria eta parte-hartzea hobeto ulertzea helburu duten **ikerketa eta lanak** babestu.
- Gazteen parte-hartzearekin zerikusia duten postu tekniko zein politikoetan **errelebo eraginkorrak** bermatu, atzera pausuak ez emateko.
- Parte-hartzea sustatzeko baldintza hobekak izango dituen **gizarte ereduak bultzatu** (denboraren kudeaketa, espazioen erabilera, hezkuntza-edukiak, lan-baldintzak...).



## Elkarteei:

- Komunikazio eta parte-hartze bide berriak **irekitzea**, kide berriak erakartzeko.
- **Itxiak** diren azpitaldeak saihestea.
- Parte-hartzaileen nahien eta gaitasunen arabera **eginkizunen banaketa** ahalbidetzea.
- Parte-hartzeko **maila eta modu** ezberdinak sustatzea (noizbehinkako eta gaikako inplikazioetatik konpromiso egonkor eta osoagoetara).
- Pertsona gazteek erreferentziako **erantzukizunak** bereganatu ditzatela posible egitea, eta aldatzeko proposamenei beldurra galtzea.
- Lan egiteko moduak **berritzea** (ordutegiak, bileren iraupena, komunikatzeko moduak...).
- Parte hartzea **esperientzia positiboa** izan dadila lortzea (harreman pertsonal onak sustatzea, dibertsiorako eta sozializatorako guneak eta momentuak sortzea...).
- Elkarteko kideen eta bere ezagunen arteko **topaguneak** sortu, parte-hartzera animatu litezkeen pertsonetara gerturatzeko.
- Gazte-kolektiboen kasuan, **gazte ez diren pertsonen osatutako talde** bat bilakatzea saihestea.

## Euskadiko Gazteriaren Kontseiluari:

- Gazteen parte-hartzea sustatzeko **komunikazio kanpainak** egiten jarraitzea.
- **Aholkularitza, material-lagapena eta dinamizazioa** bezalako zerbitzuak zabaldu eta indartzea.
- Bere egitura eta funtzionamendua aldatzea, **parte-hartze errealitate berriei lekua** irekitzeko (erregistratzen ez diren kolektiboak, mugimendu espontaneoak...).
- Bere diskurtsoa euskal gazteriaren kezka nagusietara moldatzea (gaur egun, baldintza sozioekonomikoak), bere eskubideak defendatzeko eta bere parte-hartze aktiboa sustatzeko.
- Gaur egun jorratzen ez dituen **lan-ildoak** garatzea, euskal gazteen bizi-baldintzak hobetzeko.
- **Kontseiluko kide diren elkarrekin** erakundean gehiago parte hartu dezaten lortzea, eta gaur egun kide ez diren kolektiboak erakartzea.
- Gazteriari buruzko **ikuspuntu negatibo**ei aurre egiteko txostenak eta lanak argitaratzea.
- **Post-gazteriaren** inguruko eztabaida jorratzea, gaztetasunaren amaiera lausoari buruzko orientabidea eman ahal izateko.
- **Espazio kritiko moduan**, gazte mugimenduen **bozgorailu** gisa eta gazteria eta Administrazioaren arteko elkarriketa sustatzeko **zubi** bezala dituen eginkizunak indartzea.
- Gazteen parte-hartzea sustatzeko duen **eginkizuna sendotzeko** estrategia bat diseinatzea, behin azken urteetako ziurgabetasun egoera gainditua.



## IKERKETA ZENBAKIETAN

- Boluntariora eta astialdia, soziopolitika eta sindikalgintza, gizarte ekintza eta kultura eta bestelako esparruekin zerikusia duten **75 eragileetako 99 pertsonekin 69 elkarrizketa**.
- **Hiru eztabaida talde** Gasteizen, Bilbon eta Donostian, 35 parte-hartzaileekin.
- **Guztira 116 pertsonek** parte hartu dute (%60 emakumeak, %40 gizonak).



**informazio+**  
688 67 59 32  
665 71 16 40  
Itsaso Estarrona Elizondo  
Komunikazioa